

ANDOAINGO UDALA

IRAGARPENA, Andoaingo Udalaren 1989.eko urteari dagokion Enplegu Publikoaren eskaintza argitaratuz. 5838

AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN

ANUNCIO por el que se publica la Oferta de Empleo Público correspondiente al año 1989, del Ayuntamiento de Andoain. 5838

Euskadi Osorako Erabakiak Disposiciones Generales del País Vasco

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

2391

183/89 DEKRETUA, uztailaren 27koa, Euskal Autonomi Elkartearen industri jabetzapekoak diren hainbat titulu «Euskal Irrati-Telebista» Herri Erakundearen ondarean sartzeari buruzkoa.

Euskadiko ondareari buruzko uztailaren 27ko 14/1983 Legeko Gehigarritzko Xedapenetatik Hirugarrenak horretarako baimena ematen duenez, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioak kudeatu eta irrati zein telebistaren zerbitzurako diren ondasunak eta eskubideak, «Euskal Irrati-Telebista» Herri Erakundearen ondarean edo horren kudeaketa-Baltzuetan sar daitezke, Herri Erakunde hori sortzeari buruzko maiatzaren 20ko 5/1982 Legeko 46. atalean jasotakoa beteaz horrela.

Dekretu honen ondorioz eta aipatutako Gehigarritzko Xedapenarekin bat etorriz, 1982. urteaz geroztik Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioak erosi eta Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren ondasunak eta eskubideak «Euskal Irrati-Telebista» Herri Erakundearen ondarean sartzeari buruzko martxoaren 12ko 76/84 Dekretuz aipatu Erakunde horretan sartu ez ziren industri jabetzapeko eskubideak sartzen dira Erakundearen Ondarean.

Hori horrela, Ogasun eta Finantza Sailburuaren proposamenez, Eusko Jaurlaritzak 1989.eko uztailaren 27an egindako bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengo atala.— Euskadiko Ondareari buruzko uztailaren 27ko 14/1983 Legeko Gehigarritzko Xedapenetatik Hirugarrenean eta «Euskal Irrati-Telebista» Herri Erakundearen sortzeari buruzko maiatzaren 20ko 5/1982 Legeko 46. atalean ezarritakoa betez, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioak erosi eta Herri Erakunde horrentzakoak ziren industri jabetzapeko eskubideak sartzen dira «Euskal Irrati-Telebista» Herri Erakundearen Ondarean:

- a) «Radio Araba» Marka, 1.020.384 (2) zenbakiduna, 9. sailean erregistratua.
- b) «Radio Araba» Marka, 1.020.385 (6) zenbakiduna, 35. sailean erregistratua.
- c) «Radio Araba» Marka, 1.020.386 (9) zenbakiduna, 38. sailean erregistratua.
- d) «Radio Euskadi» Marka, 1.020.387 (7) zenbakiduna, 9. sailean erregistratua.

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

2391

DECRETO 183/89 de 27 de Julio, sobre integración de algunos títulos de propiedad industrial de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el Patrimonio del Ente Público Radiotelevisión Vasca.

La Disposición Adicional Tercera de la Ley 14/83, de 27 de Julio, sobre Patrimonio de Euskadi, autoriza la integración en el patrimonio del Ente Público Radiotelevisión Vasca o en sus Sociedades de gestión, de los bienes y derechos que destinados al servicio de la radio difusión y televisión, gestionaba la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, cumpliéndose así también la prevención contenida en el artículo 46 de la Ley 5/82 de 20 de Mayo, de creación del citado Ente Público.

Por este Decreto, y de acuerdo con la Disposición Adicional mencionada, se integran en el Patrimonio del Ente los derechos de propiedad industrial que con posterioridad al año 1982 fueron adquiridos por la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca y no fueron integrados en el Patrimonio del Ente por el Decreto 76/84, de 12 de Marzo, sobre integración de bienes y derechos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el Ente Público Radiotelevisión Vasca.

En su virtud, a propuesta del Consejero del Departamento de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Pleno del Gobierno Vasco, en su reunión del día 27 de julio de 1989,

DISPONGO:

Artículo Primero.— En cumplimiento de lo establecido en la Disposición Adicional Tercera de la Ley 14/83, de 27 de Julio, sobre Patrimonio de Euskadi, y en el artículo 46 de la Ley 5/82, de 20 de Mayo, sobre creación del ente público Radiotelevisión Vasca quedan integrados en el Patrimonio del Ente Público Radiotelevisión Vasca los derechos de la propiedad industrial adquiridos por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y destinados al Ente Público citado, que a continuación se relacionan:

- a) Marca «Radio Araba», n.º 1.020.384 (2) registrada en la clase 9.º.
- b) Marca «Radio Araba», n.º 1.020.385 (6) registrada en la clase 35.º.
- c) Marca «Radio Araba», n.º 1.020.386 (9) registrada en la clase 38.º.
- d) Marca «Radio Euskadi», n.º 1.020.387 (7) registrada en la clase 9.º.

e) «Radio Euskadi» Marka, 1.020.388 (5) zenbakiduna, 35. sailean erregistratua.

f) «Radio Euskadi» Marka, 1.020.389 (3) zenbakiduna, 38. sailean erregistratua.

g) «Radio Araba» Marka, 1.020.483 (0) zenbakiduna, 9. sailean erregistratua.

h) «Radio Araba» Marka, 1.020.484 (9) zenbakiduna, 35. sailean erregistratua.

i) «Radio Araba» Marka, 1.020.485 (7) zenbakiduna, 38. sailean erregistratua.

Bigarren atala.— «Euskal Irrati-Telebista» Herri Erakundearen Zuzendari Nagusiak, Erakunde horren kudeaketarako Baltzu Publikoei eskura diezaieke jabetza-eskubideen titularitatea.

Hirugarren atala.— Industri jabetzapeko eskubideak sartzeari buruz Dekretu honetan ezartzen ez denetan, «Euskal Irrati-Telebista» Herri Erakundearen ondasunak eta eskubideak sartzeari buruzko martxoaren 12ko 76/1984 Dekretuan eta horren kudeaketa-araudian agindutakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako egunaren biharamunetik hartuko du indarra Dekretu honek.

Gasteiz, 1989.eko uztailak 27.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Finantza Sailburua,
ALFONSO BASAGOITI ZABALA.

e) Marca «Radio Euskadi», n.º 1.020.388 (5) registrada en la clase 35.º.

f) Marca «Radio Euskadi», n.º 1.020.389 (3) registrada en la clase 38.º.

g) Marca «Radio Alava», n.º 1.020.483 (0) registrada en la clase 9.º.

h) Marca «Radio Alava», n.º 1.020.484 (9) registrada en la clase 35.º.

i) Marca «Radio Alava», n.º 1.020.485 (7) registrada en la clase 38.º.

Artículo Segundo.— El Director General del Ente Público Radiotelevisión Vasca podrá atribuir la titularidad de los derechos propiedad del Ente a sus Sociedades Públicas de gestión.

Artículo tercero.— La presente integración de derechos de propiedad intelectual se regirá en lo no previsto por el Decreto 76/1984, de 12 de Marzo, sobre integración de bienes y derechos del Ente Público Radiotelevisión Vasca, y normativa de gestión del mismo.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de Julio de 1989.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Finanzas,
ALFONSO BASAGOITI ZABALA.

Bestelako Agintza eta Erabakiak Otras Disposiciones y Acuerdos

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2392

AGINDUA, 1989.eko uztailaren 28koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarena, Bilboko (Bizkaia) «Berrio-Ochoa» izeneko Batxilergoko Ikastegi Pribatuaren Behin-Betiko Sailkapen-Agindua birraztertzen eta gaurkotzen duena.

Jn.T.Argia:

Gero zehazten den Ikastetxearen titularra den Hermanos Menesianos Erakundearen ordezkotza eginez Porfirio Blanco Fernandez Jaunak, B.B.B.-ko Ikastetxe homologatu gisa Ikastetxe horri behin-betiko sailkapena ematen zitzaioneko Agindua aldatzeko eskatuz, hasiarazitako espedientea aztertu ondoren.

Hau honela: Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak tramitatu duela espedientea, aldeko proposamenez bidaltzen duela eta Batxilergoko Ikuskaritza Teknikoaren, Unitate Teknikoaren eta Plangintzarako Negoziatuaren txostenak erasten zaizkiola.

Honako hauek ikusita: Ekainaren 7ko 1855/1974 Dekretua (uztailaren 10eko E.B.O.), Batxilergoko Ikastetxe pribatuen sailkapena arautzen duen 1978.eko

DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

2392

ORDEN de 28 de Julio de 1989, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se revisa y actualiza la Orden de Clasificación Definitiva del Centro privado de Bachillerato «Berrio-Ochoa» de Bilbao (Bizkaia).

Ilmo. Sr.:

Examinado el expediente incoado por Don Porfirio Blanco Fernandez en representación de los Hermanos Menesianos, titular del Centro más abajo reseñado, solicitando la modificación de la Orden por la que se clasificó definitivamente dicho Centro como Centro de B.U.P. homologado.

Resultando que el expediente ha sido tramitado por la Delegación Territorial del Departamento en Bizkaia que lo eleva con propuesta favorable, acompañado de los informes de la Inspección Técnica de Bachillerato, de la Unidad Técnica y del Negociado de Planificación.

Vistos el Decreto 1855/1974, de 7 de Junio (B.O.E. de 10 de Julio), la O. M. de 8 de Mayo de 1978 (B.O.E. del 15) reguladora de la clasificación de Cen-